



IKASTEKO GELAK ERABILTZEKO ARAUAK

1. Atezaintzan eskatuko dira libre dauden geletako giltzak, eta **eskuratzeko ezinbestez aurkeztu beharko da ikasle txartela**. Ikasteko denbora amaitu eta giltzak itzuli ondoren berreskuratuko da txartela. Txartel horren orde ezin izango da beste edozein egiaztagiririk aurkeztu. **Txartelik aurkezten ez bada ezin izango zaio zerbitzurik eman**.
2. Eskolan matrikulatuta dauden ikasleek ikasteko gela eskatu ahaliko dute, baina eskolan ikasten duten musika tresna jotzen ikasteko bakarrik.
3. Ikasketa geletara sartzeko EZINBESTEKOIA izango da hiruhilekoko kuotak ordainduta izatea.
4. 13 urtetik beherakoek nagusi batekin egon behar dute
5. Ikasteko gelen ordutegia:

| | |
|-------------|---------------|
| Goizez: | 11:00 - 13:00 |
| Arratsaldez | 14:00 - 21:00 |
6. Ezin izango da eskolatik atera gelako giltza zentroko atezaintzan utzi ez bada.
7. Ordu erdirako utziko da gela; Denbora hori amaitzean beste ikasleren bat zain badago, gela libre utzi beharko da, baina inor ez badago, gela erabiltzen jarraitu ahal izango da.
8. Ikasteko uzten diren gelak irakasleenak dira, beraz, bertan dauden material zein objektuekiko begirune handiz jokatu beharko da. Ezin da janaririk eta edaririk sartu, plastikozko ontzietan dagoen ura izan ezik.
9. Musika tresna jotzen denean ate eta leihoek itxita egon behar dute.
10. Bi ikaslek edo gehiagok batera jo nahi badute, **guztiek aurkeztu behar dute beren txartela gelan sartu ahal izateko**.
11. Eskolan matrikulatu gabekoak ezin dira geletan sartu.
12. Aipatutako arauak betetzen ez badira, bertan behera geratuko da ikasteko gelak erabiltzeko aukera, eskolako zuzendaritzak adierazten duen epean.
13. Eskolan baja ematean txartela itzuli egin behar da.